incidencias sobre licitación electrónica: 945 01 62 98.

Kontratazio-organoak edo mahaiak lizitatzaileei egiaztagiri guztiak edo horietako batzuk aurkezteko eska diezaieke, uste badu adierazpenaren iraupenaren edo fidagarritasunaren gainean arrazoizko zalantzak daudela edo prozeduraren garapen onerako beharrezkoa denean. Nolanahi ere, kontratua adjudikatu aurretik egin beharko dute hori.

El órgano o la mesa de contratación podrá pedir a los licitadores que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración, cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento y, en todo caso, antes de adjudicar el contrato.

26. klausula. Dokumentuak zuzentzea.

Cláusula 26. Subsanación de documentos.

Lizitatzaileek, kontratazio-organoak edo -mahaiak hala eskatuz gero, parte hartzeko baldintzak betetzen dituztenaren erantzukizunpeko adierazpenak zuzendu egin behar dituzte, baldin eta aurkeztu ez badituzte edo aurkeztutakoa ondo beteta ez badago. Halaber, adjudikaziodunak zuzendu ahal izango ditu kontratua adjudikatu aurretik eskatu zaizkion egiaztagiriak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko, baldin eta horiek falta badira edo osatu gabe badaude. Bi kasuetan, lizitatzaileak hiru egun edukiko ditu, zuzentzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan zuzenduko ez balitz, kontratazio-organoak, edo, hala badagokio, kontratazio- mahaiak, lizitatzaileak eskaera atzera bota duela iritziko dio.

La presentación de declaraciones responsables de cumplimiento de requisitos de participación será objeto de subsanación por los licitadores a requerimiento de los servicios del órgano de contratación o la mesa de contratación, cuando no se hubiera presentado, o no estuviera adecuadamente cumplimentada la presentada. Igualmente, el propuesto como adjudicatario podrá subsanar la falta o incompleta presentación de los documentos acreditativos del cumplimiento de los requisitos de participación que le sean requeridos con carácter previo a la adjudicación del contrato. En ambos casos se concederá al licitador un plazo de tres días, a contar desde el siguiente al de recepción del requerimiento de subsanación. Si no se subsanase en plazo lo requerido, el órgano, o en su caso la mesa de contratación entenderá que el licitador desiste de su oferta.

27. Klausula. Proposamenen edukia.

Cláusula 27. Contenido de las proposiciones.

Getariako Udala

Eskaintza **bi gutun-azaletan** aurkeztuko da, prozeduran balio-iritzi batekin kuantifikatu beharreko adjudikazio-irizpideak ezartzen direlako:

En este supuesto se contemplan criterios de adjudicación cuya cuantificación dependa de un juicio de valor, por ello la oferta se presentará en **dos sobres**:

A)ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA ZIFREN EDO EHUNEKOEN BIDEZ BALORA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZAK JASOTZEN DITUEN GUTUN AZALA.

A) SOBRE DE DECLARACIÓN RESPONSABLE Y OFERTA DE CRITERIOS NO VALORABLES EN CIFRAS O PORCENTAJES.

Lizitatzaileek honako hauek sartu behar dituzte A) gutun-azal horretan:

Dentro de este sobre A) los licitadores deberán incluir:

1.- Erantzukizunpenko adierazpena, agiri honen VI. eranskinean ezarritako ereduaren arabera eginikoa.

1.- Declaración responsable realizada conforme al modelo establecido en el Anexo VI al presente pliego.

2.- Aldi baterako enpresari-elkartea.

2.- Uniones Temporales de Empresarios.

Hainbat enpresarik lehiaketan parte hartzeko aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, agiri honen VI. eranskinean ezarritako ereduari jarraikiz. Halaber, enpresariek aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, SPKLren 69. artikuluaren 3. idatz-zatian eskatutakoari jarraikiz, eta enpresa-elkarte horrek gutxienez kontratuaren epemugara arte iraun beharko du.

En el supuesto en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, cada empresa participante aportará la declaración responsable conforme al modelo del Anexo VI al pliego. Asimismo, deberá aportarse el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios que sean parte de esta de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 LCSP, con una duración que será coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción.

Konpromisoaren idatzian jasota geratuko dira: enpresa-elkartea eratuko duten kideen izenak eta egoera, kide bakoitzaren partaidetza eta aldi baterako enpresa-elkartea formalizatzeko konpromisoa, kontratuaren adjudikaziodunak izanez gero. Enpresa-elkartea eratzen duten enpresetako

En el escrito de compromiso se indicará: los nombres y circunstancias de los que la constituyan; la participación de cada uno de ellos, así como la asunción del compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. El citado documento deberá estar firmado por los

ordezkari guztiek sinatu beharko dute dokumentu hori.

representantes de cada una de las empresas que componen la unión.

3.- Lotutako enpresak.

3.- Empresas vinculadas.

Soilik talde bereko enpresen kasuan, horrelakotzat hartuta Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren ustezkoetako batean daudenak eta adjudikazioan modu independentean lehiatzeko proposamen ezberdinak aurkezten dituztenak, egoera hori jasota uzten duen adierazpena aurkeztu beharko dute. Proposamen ezberdinak aurkezten dituzten eta Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako ordezko kasuren batean lehiatzen diren sozietateek ere berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute elkartea eratzen duten bazkideei dagokienez.

Únicamente, las empresas pertenecientes a un mismo grupo, entendiéndose por tales las que se encuentren en alguno de los supuestos del artículo 42 del Código de Comercio y que presenten distintas proposiciones para concurrir individualmente a la adjudicación, deberán presentar declaración en la que hagan constar esta condición. También deberán presentar declaración explícita aquellas sociedades que, presentando distintas proposiciones, concurran en alguno de los supuestos alternativos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio, respecto de los socios que la integran.

4.-Zifren edo ehunekoen bidez balora ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa. Balio-iritzi batekin haztatu beharreko irizpideak dituzten dokumentuak ere jasoko dira.

4.-Documentación de los criterios no valorables en cifras o porcentajes. Se incluirá la documentación que deba ser valorada conforme a los criterios cuya ponderación depende de un juicio de valor.

Aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoari dagokionez:

En relación con la documentación técnica a presentar:

Gutun-azal honetan memoria tekniko bat sartu beharko da, baloratu beharreko alderdi guzti-guztiak bilduko dituena.

Habrá que incluir en este sobre una memoria técnica que recoja todos y cada uno de los aspectos a valorar.

Era berean, Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguetan eskatzen den dokumentazio guztia eta **lan-programa sartu** beharko dira, eskatzen denaren arabera. Memoria tekniko hori ez sartzeak berehala enpresaren lizitaziotik kanpo uztea ekarriko du.

Asimismo, habrá que incorporar toda aquella documentación exigida en los Pliegos de Prescripciones Técnicas Particulares y el **programa de trabajo**, conforme a lo exigido. La no-inclusión de esta memoria técnica supondrá la inmediata exclusión de la licitación de la empresa.

Getariako Udala

Memoria teknikoa PDF formatuan entregatuko da, ondoren zehazten diren ezaugarriekin: Lizitatzailearen proposamenak zati grafiko bat (gehienez 2 orrialde DIN A3) eta zati idatzi bat (gehienez 8 orrialde DIN A4) izango ditu. Azalak eta aurkibideak ez dira zenbatuko orrialde-kopururako. Era berean, programazioa ezartzera mugatuko den Gantten diagrama bat entregatu ahal izango da, informazio gehigarririk gabe eta orrialde-kopuru maximoaren ondorioetarako zenbatuko ez dena. Testuak Arial letraz idatziko dira, gutxienez 10, eta lerroartean 1,5.

La memoria técnica se entregará en formato PDF y con las características que se establecen a continuación: Constará de una parte gráfica (máximo 2 páginas DIN A3) y una parte escrita (máximo 8 páginas DIN A4) que exprese la propuesta del licitador. Las portadas e índices no computarán para el número de páginas. Asimismo, se podrá entregar un diagrama de Gantt que se limitará a establecer la programación, sin incluir información adicional y que no computará a efectos del nº máximo de páginas. Los textos se escribirán con letra Arial de tamaño no menor de 10, e interlineado 1,5.

Agiri horrek adierazitako gehieneko folio eta plano kopurua gainditzen badu, balorazio-irizpideei 0 puntu emango zaizkie.

En el caso de que el referido documento supere el máximo de folios y planos indicado, los criterios de valoración correspondientes serán valoradas con 0 puntos.

B) ZIFREN EDO EHUNEKOEN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ESKAINTZA DAUKAN GUTUN-AZALA

B) SOBRE DE OFERTA DE CRITERIOS VALORABLES EN CIFRAS O PORCENTAJES.

Proposamen ekonomikoa B) gutun azal honetan barruan sartuko da. Proposamen horrek VII Eranskinean finkatutako ereduaren arabera egon behar du idatzita, eta ez dira onartuko administrazioaren ustez eskaintza bat balioesteko funtsezkoa dena ezagutzea eragozten duten ez- betetzeak, akatsak edo marratzeak dituzten irizpideak.

Dentro de este sobre B) se presentará redactada conforme al modelo fijado en el Anexo VII al presente pliego, no aceptándose aquellas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta.

Kontratazio-mahaiak proposamenak atzera botako ditu (ebazpen arrazoitu baten bidez) baldin eta aztertua eta onartua izan den dokumentazioarekin bat ez badator, lizitazioaren oinarri-aurrekontua gainditzen badu, ezarritako

Si alguna proposición no guardase concordancia con la documentación examinada y admitida, excediese del presupuesto base de licitación, variase sustancialmente el modelo establecido, comportase error manifiesto en el importe

eredua nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena badauka, edo lizitatzaileak aitortzen badu eskaintzak badituela bideraezin bihurtzen duten akatsak edo funsgabetasuna. Ez da uko egiteko arrazoi nahikoa izango ereduan hitz batzuk aldatzea edo kentzea, esanahia aldatzen ez bada.

de la proposición, o existiese reconocimiento por parte del licitador de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la Mesa de contratación mediante resolución motivada, sin que sea causa bastante para el rechazo el cambio u omisión de algunas palabras del modelo si ello no altera su sentido.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa partida independente gisa adieraziko da proposamenean.

En la proposición se indicará como partida independiente el importe del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Halaber, gutun-azal honetan sartuko da, hala badagokio, zifren edo ehunekoen bidez automatikoki (pleguetan ezarritako formulak aplikatuta) ebalua daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazio osoa.

Asimismo, se incluirá en este sobre toda la documentación relativa a aquellos criterios evaluables de manera automática mediante cifras o porcentajes por aplicación de las fórmulas establecidas en los pliegos.

28.klausula. Proposamenak aurkeztearen ondorioak.

Cláusula 28. Efectos de la presentación de proposiciones.

Proposamenak aurkeztean, enpresariak agiri honen baldintzak salbuespenik gabe onartzen ditu eta administrazioarekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkezten du.

La presentación de proposiciones supone por parte del empresario la aceptación incondicional de las condiciones de este pliego y la declaración responsable de que reúne todas y cada una de las condiciones exigidas para contratar con la Administración.

29. klausula. Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea, baloratzea eta proposamenak irekitzea.

Cláusula 29. Calificación de la documentación presentada, valoración y apertura de proposiciones.

Proposamenak dituzten gutun-azalak behar den ordenan irekiko dira, bat etorrita pleguan ezarritako adjudikaziorako irizpideak baloratzeko metodo aplikagarriaren arabera 145. artikuluan jasota dagoenarekin. Gutun-azalak kontratazio-mahaiak irekiko ditu.

La apertura de los sobres conteniendo la proposición se hará por el orden que proceda de conformidad con lo establecido en el artículo 145 en función del método aplicable para valorar los criterios de adjudicación establecidos en los pliegos. La apertura se hará por la

Getariako Udala

mesa de contratación.

Kontratazio-mahaiaren jarduera lizitatzaileak eskaintza egiteko aurkeztu behar dituen gutun- azalen araberakoa izango da. Lizitatzaileak gutun- azal bakarra aurkeztuko du, prozeduran balio-iritziarekin kuantifikatu beharreko adjudikazio- irizpideak ezartzen ez direnean, eta, aldiz, bi gutun- azal, irizpide horiek ezartzen direnean. Aurrekoa aintzat hartuta, kontratazio-mahaiak honela jardungo du:

La actuación de la mesa de contratación se adaptará en función de los sobres que el licitador deba presentar al formular su oferta, ya que éste presentará un único sobre cuando en el procedimiento no se contemplen criterios de adjudicación cuya cuantificación dependa de un juicio de valor y dos sobres cuando se contemplen dichos criterios. Teniendo en cuenta lo anterior, la actuación de la mesa de contratación será la siguiente:

Lizitatzaileak bi gutun-azal aurkeztu behar dituenean balio-iritzi batekin kuantifikatu behar diren adjudikaziorako irizpideak daudelako, kontratazio-mahaiak zifren edo ehunekoen bidez balora ezin daitezkeen irizpideen eskaintza eta adierazpena jasotzen dituen gutun-azala irekiko du ekitaldi publikoan. Balio-iritzi batekin kuantifikatu behar diren adjudikazio-irizpideei buruzko gutun-azalean jasotzen den dokumentazioa kontratazio- organoaren zerbitzu teknikoei bidaliko zaie, txostena egin dezaten.

En aquellos casos en los que el licitador deba presentar dos sobres, al contemplarse criterios de adjudicación cuya cuantificación dependa de un juicio de valor, la mesa de contratación procederá a la apertura del sobre que contiene la declaración y la oferta de criterios no valorables en cifras o porcentajes. La documentación que contenga el sobre relativo a los criterios de adjudicación cuya cuantificación dependa de un juicio de valor, se remitirá para su informe a los servicios técnicos del órgano de contratación.

Ekitaldiaren amaieran, saio horretan bertan, kontratazio-mahaiak lizitatzaileek aurkeztutako adierazpena kalifikatuko du.
Kontratazio-organoak formulak aplikatuz kuantifikatuko diren irizpideak irekitzeko eta irakurtzeko ekitaldia zer egunetan egingo den argitaratuko du beharrezko aurrerapenarekin, https://www.getaria.eus/eu/kontratatzaile-profila/ agertzen den kontratatzailearen profilean.

Finalizado el acto, en la misma sesión, la mesa procederá a calificar la declaración presentada por los licitadores.
El órgano de contratación publicará, con la debida antelación, en el perfil de https://www.getaria.eus/eu/kontratatzaile-profila/, la fecha de celebración del acto de apertura y lectura de los criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas.

Kontratazio-mahaiak ekitaldi berri horretan jakinaraziko du zer proposamen

La mesa, en este nuevo acto, indicará las proposiciones que han sido admitidas, las

onartu eta baztertu diren, eta azken kasu horretan, proposamenak baztertzearen arrazoiak azalduko ditu. Halaber, ezagutzera emango da balio-iritziarekin kuantifikatu behar diren adjudikazio-irizpideek zer balorazio izan duten, eta, azkenik, formulak aplikatuz kuantifikatu beharreko irizpideak ireki eta irakurriko dira.

que han sido rechazadas y las causas de inadmisión de estas últimas. Asimismo, se dará a conocer la valoración asignada a los criterios de adjudicación cuya cuantificación dependa de un juicio de valor, y por último se procederá a la apertura y lectura de los criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas.

Ahal bada, ekitaldian eta saio berdinean ere, eta, hala badagokio, agiriaren eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak kanpo ondoren, kontratazio-mahaiak eskaintzak ebaluatu eta sailkatu egingo ditu. Anormaltzat hartzen den eskaintzarik identifikatuz gero, kontratazio-mahaiak 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, eta lizitatzaileei beren eskaintza justifikatzeko 5 egun balioduneko epea emango zaie gehienez ere, jakinarazpen-datatik zenbatzen hasita.

Finalizado el acto, en la misma sesión, la mesa procederá previa exclusión, en su caso, de las ofertas que no cumplan los requerimientos del pliego, a evaluar y clasificar las ofertas. En el supuesto de que se identifiquen ofertas que se encuentran incursas en presunción de anormalidad, la mesa seguirá el procedimiento previsto en el artículo 149, si bien el plazo máximo que puede conferirse al licitador para que justifique su oferta no podrá superar los 5 días hábiles, desde la fecha del envío de la correspondiente comunicación.

Gainera, bi eskaintzen edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, berdinketa hausteko erregimena aplikatu behar da, agiri honen 26. klausulan zehaztutakoa.

Además, en el caso de que se produzca el empate entre dos o más ofertas, se deberá aplicar el régimen de desempate establecido en la cláusula 26 del presente pliego.

Gero, kontratazio-mahaiak puntuaziorik onena lortu duen hautagaiari adjudikatzeko proposamena egingo du. Adjudikaziodun izateko proposatu den lizitatzaileari dagokionez, kontratazio-mahaiak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatuko du enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko gaitasun nahikoa, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo, hala badagokio, dagokion sailkapena dituela,

Posteriormente, la mesa realizará la propuesta de adjudicación a favor del candidato con mejor puntuación. En relación con el licitador propuesto como adjudicatario, la mesa comprobará en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas que la empresa está debidamente constituida, el firmante de la proposición tiene poder bastante para formular la oferta, ostenta la solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso la clasificación correspondiente y no está incursa en

eta kontratatzeko debekurik ez duela.

Halaber, kontratazio-mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari adjudikaziorako behar den dokumentazioa, eta, hala badagokio, Lizitatzaileen Erregistroan jasota ez dagoen bestelako dokumentazioa eskatuko dio, agiri honen 26. klausulan ezarritako baldintzetan.

Behin kontratuaren adjudikazioa jakinarazita, helegiteak aurkezteko epea igarota helegiterik egon ez bada, proposamenekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da. Interesdunek adjudikazioaren berri jasotzen eta hurrengo hiru hilabeteetan beren dokumentazioa hartzen ez badute, administrazioak ez du gordetzen jarraitzeko obligaziorik izango.

30. klausula. Erantzukizunpeko adierazpenaren egiazkotasuna egiaztatzea.

Kontratazio-organoaren edo kontratazio-mahaiaren zerbitzuek lizitatzaileei edozein unetan eska diezaiekete dokumentuen bidez justifikatzeko erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu dituzten baldintzak. Lizitatzaileak gehienez ere bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko du errekeritutako dokumentazioa, errekerimendua bidaltzen denetik. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza atzera bota duela iritziko zaio, eta prozeduratik kanpo geratuko da.

31.klausula. Ohikoa baino eskaintza

ninguna prohibición para contratar.

Asimismo, la mesa requerirá a la empresa que ha obtenido la mejor puntuación, la documentación necesaria para la adjudicación y, en su caso, cualquier otra documentación que no esté inscrita en el Registro de Licitadores, en los términos establecidos en la cláusula 26 al presente pliego.

Notificada la adjudicación del contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, la documentación que acompaña a las proposiciones quedará a disposición de los interesados. Si éstos no retiran su documentación en los tres meses siguientes a la fecha en que se les notifique la adjudicación, la Administración no estará obligada a seguirla custodiando.

Cláusula 30. Comprobación de la veracidad de las declaraciones responsables.

Los servicios del órgano de contratación o la mesa de contratación podrán, en cualquier momento, solicitar la justificación documental del cumplimiento de las condiciones sobre las que los licitadores hubieran declarado responsablemente su cumplimiento. El licitador deberá presentar la documentación requerida en un plazo máximo de cinco días hábiles a contar desde el envío del requerimiento. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta y será excluido del procedimiento.

Cláusula 31. Ofertas anormalmente

baxuagoa.

Hasiera batean, honako kasu hauetan dauden eskaintzak hartuko dira neurriz kanpokotzat edo ezohikotzat:

1. Lizitatzaile bakarra izanik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 20 ehuneko-unitate txikiagoa denean.
2. Bi lizitatzaile lehiatzen direnean, beste eskaintza baino 20 ehuneko-unitate baino gutxiago dituena.
3. Hiru lizitatzaile edo gehiago lehiatzen direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 ehuneko-unitate baino gutxiago dituztenak. Hala ere, batez besteko hori zenbatzeko, eskaintzarik handiena baztertu egingo da, batez besteko hori baino 10 ehuneko-unitate baino handiagoa denean.

Edonola ere, neurriz kanpokotzat joko da ehuneko 25 unitatetik gorako baja.

Gainera neurrigabetzat edo ezohikotzat joko dira honako eskaintza hauek: azpikontratazioari buruzko araudia urratzen badute edo ingurumen, gizarte edo lan arloan, estatuan edo nazioartean aplikatzekoak diren betebeharrak betetzen ez badituzte, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Eskaintzak neurrigabetzat edo ezohikotzat jotzeko, kontratazioak kontuan hartuko du enpresak

bajas.

Se considerarán, en principio, como desproporcionadas o anormales las ofertas que se encuentren en los siguientes supuestos:

1. Cuando, concurriendo una sola licitadora, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 20 unidades porcentuales.
2. Cuando concurran dos licitadoras, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta.
3. Cuando concurran tres o más licitadoras, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media.

En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales.

En todo caso tendrán la consideración de desproporcionadas o anormales las ofertas que vulneren la normativa sobre subcontratación o no cumplan las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes, en aplicación de lo establecido en el artículo 201 de la LCSP.

Para la valoración de las ofertas como desproporcionadas o anormales, la Mesa de contratación tendrá en cuenta la

aurkeztutako eskaintzaren justifikazio-memoria, eta enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko harremana kontuan hartu ahal izango du.

Memoria Justificativa de la oferta presentada por la empresa y podrá considerar la relación entre la solvencia de la empresa y la oferta presentada.

Eskaintzaren anormaltasuna justifikatzeko epea: 5 egun baliodun jakinarazpena jasotzen denetik.

Plazo para la justificación de la anormalidad de la oferta: 5 días hábiles desde la recepción de la notificación.

Proposamena ezin betekotzat joko da baldin eta, balio ohiz kanpokoak edo neurrigabekoak sartuta, frogatzen bada ohikoa baino baxuagoa dela betetzen ez dituelako ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetan bete beharreko obligazioak, zeinak ezarrita baitaude Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, lan-hitzarmen kolektiboetan eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, 2014ko otsailaren 26an, emandako 2014/24/EB zuzentarauko X. Eranskinean ezarritako nazioarteko zuzenbidean eta ingurumen-, gizarte- eta lan- zuzenbidean.

Se considerará que la proposición no podrá ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados en el caso de que se compruebe que es anormalmente baja porque no cumple las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral establecidas en el Derecho de la Unión, el Derecho nacional, los convenios colectivos o por las disposiciones de Derecho internacional medioambiental, social y laboral enumeradas en el anexo X de la Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo de 26 de febrero de 2014.

Halaber, proposamena ezin betekotzat joko da baldin eta, balio ohiz kanpokoak edo neurrigabekoak sartuta, baxuagoa bada lan- hitzarmen aplikagarriaren lan-kostua baino, plegu honetan ezarritakoaren arabera.

Asimismo, se considerará que la proposición no podrá ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados en el caso de que sea inferior al coste laboral derivado del Convenio Colectivo aplicable, de acuerdo con lo establecido en el presente pliego.

II. KAPITULUA Adjudikaziorako proposamena, adjudikatzea eta hobetzea eta formalizatzea.

CAPÍTULO II. De la propuesta de adjudicación, adjudicación y perfección y formalización.

32. klausula. Adjudikazio-proposamenaren ondorioak. Administrazioak adjudikazio-prozedura bertan behera uztea eta kontratua ez gauzatzeko edo ez

Cláusula 32. Efectos de la propuesta de adjudicación. Decisión de no adjudicar o celebrar el contrato y desistimiento del procedimiento de adjudicación por la Administración.

adjudikatzeko erabakia hartzea.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez dio proposatu den lizitatzaileari inolako eskubiderik ematen, eta administrazioaren aurrean ez du eskubiderik izango ere, kontratua formalizatzen ez den arte.

La propuesta de adjudicación del contrato no crea derecho alguno en favor del licitador propuesto, que no los adquirirá, frente a la Administración, mientras no se haya formalizado el contrato.

SPKLren 152. artikuluan jasotakoa betez, kontratazio-organoak prozedura bertan behera uztea edo kontratua ez adjudikatzea edo ez gauzatzea erabaki dezake, formalizatu aurretik.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 152 LCSP la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato o el desistimiento del procedimiento podrán acordarse por el órgano de contratación antes de la formalización.

Interes publikoko arrazoiengatik soilik erabaki daiteke kontratua ez adjudikatzea edo ez gauzatzea, eta hori behar bezala justifikatu beharko da espedientean. Prozedura bertan behera utz daiteke soilik, kontratuaren prestatzeko arauetan edo adjudikazio- prozeduraren erregulatzen duten arauetan arau-hauste konponezin bat dagoenean eta espedientean justifikatu beharko da.

Sólo podrá adoptarse la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato por razones de interés público debidamente justificadas en el expediente. El desistimiento del procedimiento deberá estar fundado en una infracción no subsanable de las normas de preparación del contrato o de las reguladoras del procedimiento de adjudicación, debiendo justificarse en el expediente la concurrencia de la causa.

33. klausula. Kontratua adjudikatzea.

Cláusula 33. Adjudicación del contrato.

Kontratazio-organoari dagokio kontratu adjudikatzea. Kontratazio- organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari adjudikatuko dio kontratua, SPKLren 145. artikulua betez. Aintzat hartuko den irizpide bakarra prezioa denean, iritziko zaio eskaintzarik onena preziorik txikienekoa dela; dena dela, arrazoizkoa baino eskaintza txikiagoak zehazteko irizpideak ezarri ahal izango dira. Adjudikaziorako irizpide anitz erabiltzen direnean, kalitate-prezio erlazio onena hartuko da oinarritzat.

La adjudicación del contrato corresponde al órgano de contratación señalado en el presente pliego. El órgano de contratación adjudicará el contrato al licitador que haya presentado la mejor oferta, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 145 LCSP. Cuando el único criterio a considerar sea el precio, se entenderá que la mejor oferta es la que incorpora el precio más bajo, sin perjuicio de la aplicación de criterios para la determinación de ofertas anormalmente bajas. La adjudicación utilizando una

Getariako Udala

pluralidad de criterios se hará en base a la mejor relación calidad-precio.

Kontratazio-mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari jakinarazpen elektroniko bidez eskatuko dio: behin betiko bermea eratzea; 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa agiriaren VIII. eranskinaren ereduaren arabera aurkeztea, hau da, 76.2 artikuluaren arabera kontratua egikaritzeko esleitu edo eskaini behar dituen baliabideak badituela justifikatzeko egiaztagiriak, eta, hala badagokio, ondoren adierazten diren polizetan harpidetuta egotearen agiria. Jakinarazpena bidaltzen denetik 7 egun baliodun edukiko ditu horretarako:

La mesa procederá a requerir a la empresa que ha obtenido la mejor puntuación, mediante comunicación electrónica, para que constituya la garantía definitiva, así como para que aporte el compromiso al que se refiere el artículo 75.2 conforme al modelo del Anexo VIII al pliego y la documentación justificativa de que dispone efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2, y en su caso, la suscripción de las pólizas que se indican a continuación y todo ello en el plazo de 7 días hábiles a contar desde el envío de la comunicación:

Erantzukizun zibileko asegurua, kontratua gauzatzearen ondorioz hirugarren pertsonei eta instalazioei eragindako kalte-galerengatik sor daitezkeen erantzukizunak bermatuko dituena, **seiehun mila euroko (600.000 €)** gutxieneko zenbatekoarekin. Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen bitartean, luzapenak eta bermealdia barne.

etariako Udala aseguratutzat hartuko da hirugarren baten izaera galdu gabe. Aseguru horietan frankiziak edo kanpoan utzitako arriskuak ezartzen badira, enpresa esleipendunak ordainduko ditu horiei dagozkien kalte-ordainak.

Seguro de responsabilidad civil que garantice las responsabilidades que se puedan derivar por los daños y perjuicios que se causen a terceras personas y a las instalaciones, como consecuencia de la ejecución del contrato y por importe mínimo de **seiscientos mil euros (600.000 €)**. Dicha cobertura deberá mantener su vigencia durante todo el período de duración del contrato, incluídas las posibles prórrogas, incluido el periodo de garantía. El Ayuntamiento de Getaria tendrá la consideración de asegurado sin perder la condición de tercero. Si en dichos seguros se establecen franquicias o riesgos excluidos, las indemnizaciones correspondientes a los mismos serán sufragadas por la empresa adjudicataria.

Eraikuntzako arrisku orotako asegurua: obrak egikaritzeko adjudikazio-zenbatekoa adinakoa. Aseguratu izaera izango dute kontratistak, azpikontratistek

Seguro de todo riesgo de la construcción: por el importe de adjudicación correspondiente a la ejecución de las obras. Deberá quedar

eta obran parte hartzen duen edozeinek; era berean, aseguratu gehigarri izaera izango du instalazioen jabeak.

como asegurado el contratista, subcontratistas, así como todo aquel que intervenga en la obra; asimismo debe quedar incluido el propietario de las instalaciones como asegurado adicional.

Polizak entregatzeko unea: kontratua formalizatu aurretik; beraz, ez da beharrezkoa izango polizak gutun-azalean sartzea.

Momento de entrega de las pólizas: Previa a la formalización del contrato, por lo que no será necesario incluir las pólizas junto con las proposiciones.

Enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago edo Europar Batasuneko Estatu Kide baten datu-base nazionalean enpresaren espediente birtual, dokumentuen biltegiratze- sistema elektroniko edo aurre-sailkapeneko sistema baten barnean agertzen bada, ez du toki horietan inskribatutako datuen egiaztagiririk edo bestelako frogagiririk aurkezteko obligaziorik edukiko, baldin eta aipatutako organoek doan eskuratu ahal badituzte. Kasu horretan, lizitatzaileak berariazko adierazpena eman beharko du soilik, dagokion erregistroan edo datu-basean inskribatuta dagoela esanez.

Cuando el empresario esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares, siendo únicamente necesario la manifestación expresa por parte del licitador de su inscripción en el Registro o base de datos correspondiente.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek, han jasotakoaren arabera eta aurkako frogarik ezean, ez dituzte kontratazio-deialdietan enpresariaren gaitasunari buruzko agiriak aurkeztu beharko, haren nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide- edo enpresa- gaikuntzari, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta sailkapenari dagokionez, ezta han jasotakoaren arabera kontratatzeko debekurik ez duela justifikatzeko

La inscripción en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público eximirá a los licitadores inscritos, a tenor de lo en él reflejado y salvo prueba en contrario, de la presentación en las convocatorias de contratación de las condiciones de aptitud del empresario en cuanto a su personalidad y capacidad de obrar, representación, habilitación profesional o empresarial, solvencia económica y financiera, y clasificación, así como de la acreditación de la no concurrencia de las

egiaztagiririk ere.

prohibiciones de contratar que deban constar en aquél las convocatorias de contratación de las condiciones de aptitud del empresario en cuanto a su personalidad y capacidad de obrar, representación, habilitación profesional o empresarial, solvencia económica y financiera, y clasificación, así como de la acreditación de la no concurrencia de las prohibiciones de contratar que deban constar en aquél.

SPKLren 139.1 artikuluan ezarritakoa betez, proposamenak aurkeztean kontratazio-mahaiari eta -organoari baimena ematen zaio Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatutako edo Europar Batasuneko estatu kide baten eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 139.1 LCSP, la presentación de las proposiciones supone la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos en un Estado miembro de la Unión Europea.

Gainera, 7 egun balioduneko epean Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein dokumentu aurkeztu beharko du.

Además, en el plazo de 7 días hábiles, deberá presentar cualquier otra documentación que no figure inscrita en el Registro de Licitadores.

Horrenbestez, SPKLren Hirugarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoaren arabera, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean nahitaez inskribatuta egon behar ez denean, edo datu edo dokumentuetako batzuk aipaturiko erregistroan inskribatuta ez badaude, kontratazio-mahaiak eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresariari eta adjudikaziodun izateko proposatu den ABEEko enpresa kideei dokumentu hauek aurkezteko eskatuko die, 7 egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita:

Por tanto, en aquellos casos en los que no resultara exigible la obligación de figurar inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, en aplicación a lo dispuesto en la Disposición Transitoria tercera de la LCSP, o cuando alguno de los datos o documentos no constaran inscritos en el referido Registro, la mesa de contratación deberá requerir al empresario que haya presentado la mejor oferta, así como a todas las empresas integrantes de la UTE que haya sido propuesta como adjudicataria, para que en el plazo de 7 días hábiles a contar desde el envío de la comunicación

presenten, en su caso, la siguiente documentación:

1.- Jarduteko gaitasuna.

1.- Capacidad de obrar.

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa denean, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatu dagoen osaera-eskritura edo -agiria, jarduera erregulatzen duten arauak jasotzen dituzten estatutuak edo sortze- egintza eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ).

1.1.- Si la empresa fuera persona jurídica, la escritura o documento de constitución, los estatutos o acto fundacional en los que conste las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro Público que corresponda según el tipo de persona jurídica de que se trate, así como el Número de Identificación Fiscal (NIF).

1.2.- Banakako enpresaria denean, NAN dokumentua edo arauz horren parekoa dena.

1.2.- Si se trata de empresario individual, el DNI o documento que, en su caso, le sustituya reglamentariamente.

1.3.- Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europar Eremu Ekonomikoari buruzko Itunaren kide diren estatuetako enpresa ez-espainiarren jarduteko gaitasuna dagokion erregistroko inskripzioarekin egiaztatuko da, egoitza duten estatuko legedia betez, edo bestela, zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria aurkeztuta, Europar Batasuneko xedapen aplikagarriekin bat etorriz.

1.3.- La capacidad de obrar de los empresarios no españoles que sean nacionales de Estados miembros de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, se acreditará por su inscripción en el registro procedente, de acuerdo con la legislación del Estado donde estén establecidos o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.

1.4.- Aurreko paragrafoan jasota ez dauden atzerriko enpresak badira, dagokion estatuko Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena edo enpresak egoitza duen lurralde- eremuko Bulego Kontsularrarena.

1.4.- Cuando se trate de empresas extranjeras no comprendidas en el párrafo anterior, informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa.

1.5.- Nazioarteko hitzarmenen ondorioz Espainiak eduki ditzakeen betebeharrez aparte, Europar Batasunetik edo Europar

1.5. Sin perjuicio de la aplicación de las obligaciones de España derivadas de acuerdos internacionales, las personas

Eremu Ekonomikoari buruzko Ituneko estatu kideetatik kanpo dauden pertsona fisikoek edo juridikoek txosten batekin egiaztatu behar dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak ontzat ematen duela enpresa espainiarrek SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen parekoak diren sektore publikoko erakundeekin kontrata dezatela, pare-parekoa den modu batean. Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du txostena, eta aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsiko zaio. Arauketa harmonizatuaren pean dauden kontratuen kasuan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Ituna izenpetu duten estatuetako enpresek ez dute elkarrekikotasun-txostena aurkeztu beharko.

físicas o jurídicas de Estados no pertenecientes a la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo deberán justificar mediante informe que el Estado de procedencia de la empresa extranjera admite a su vez la participación de empresas españolas en la contratación con los entes del sector público asumibles a los enumerados en el artículo 3, en forma sustancialmente análoga. Dicho informe será elaborado por la correspondiente Oficina Económica y Comercial de España en el exterior y se acompañará a la documentación que se presente.

1.6.- Atzerriko enpresek dokumentazioa gaztelaniara ofizialki itzulita aurkeztuko dute.

1.6.- Las empresas extranjeras presentarán su documentación traducida de forma oficial al castellano.

2.- Ahalordea askiestea.

Lizitatzailea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, ez du Getariako Udalak egindako ahalordearen askiespena aurkeztu beharko, baldin eta ordezkaritza hori behar bezala inskribatuta badago.
Lizitatzailea Erregistro horretan inskribatuta ez badago, beste baten izenean parte hartzen edo proposamenak sinatzen dituztenek edo pertsona juridiko bat ordezkatzen dutenek ahalorde horiek egiaztatzeko eskriturak edo egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte.

2.- Bastanteo de poderes.

En el supuesto de que el licitador esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, no será necesaria la presentación del bastanteo de poder realizado por un Letrado del Ayuntamiento de Getaria, cuando dicha representación conste debidamente inscrita.
En el caso de que el licitador no esté inscrito en dicho Registro, los que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otro o representen a una persona jurídica, deberán acompañar escrituras u documentación acreditativa de las facultades del representante.

3.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala.

Baldin eta obraren balio zenbatetsia 500.000 euroko eta handiagoa bada, lizitatzaileek honako hauaurkeztu beharko dute: Ziurtagiri originala edo horren kopia konpultsatua edo kautotua, plegu honetan eskatzen den sailkapena baduela egiaztatzen duena. Nolanahi ere, enpresa sailkapenaren zain badago hartarako eskaera aurkeztu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, eta justifikatu beharko du sailkapena eskuratuko duela dokumentazioko akatsak eta omisioak zuzentzeko ezarritako dagoen epean.

Enpresaren sailkapenaren egiaztapena egin daiteke Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri baten bidez, bat etorrita SPKLren 96. artikuluko 3. zatian xedatutakoarekin. Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europar Eremu Ekonomikoari buruzko Itunaren kide diren estatuetako enpresa ez-espainiarrek, baldin eta ez badaude Espainian sailkatuta, sailkapenaren ordez aurkeztu beharko dituzte kaudimen ekonomikoaren, finantzarioaren eta teknikoaren frogagiriak, SPKLren 87. eta 88. artikuluetan ezarritako moduan eta kontratazio-organoak plegu honetan xedatutako bitartekoen bidez.

Horretarako, kontratatzeko baimenduta dauden enpresarien zerrenda ofizialen ardura duten organo eskudunek egindako

3.- Solvencia económica, financiera y técnica o profesional.

Certificación acreditativa en original o copia compulsada o autenticada, de poseer la clasificación exigida en el presente pliego. No obstante, en aquellos supuestos en que la empresa se encuentre pendiente de clasificación deberá aportar el documento acreditativo de haber presentado la correspondiente solicitud para ello, debiendo justificar el estar en posesión de la clasificación en el plazo previsto para la subsanación de defectos u omisiones en la documentación. La acreditación de la clasificación de la empresa podrá realizarse mediante certificado del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público de conformidad con lo previsto en el apartado 3 del artículo 96 LCSP.

Los empresarios no españoles que sean nacionales de Estados miembros de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, caso de no hallarse clasificados en España, deberán presentar, en sustitución de la clasificación, la documentación acreditativa de su solvencia económica y financiera y técnica en la forma establecida en los artículos 87 y 88 de la LCSP, y por los medios previstos por el órgano de contratación.

A estos efectos los certificados de inscripción expedidos por los órganos competentes de la llevanza de las listas

